



AZPEITIKO
ARGAZKI
ELKARTEA

XXXVIII. SOKAMUTURRA ARGAZKI LEHIAKETA "IMANOL ELIAS" SARIA

Antolatzailea: **AZPEITIKO ARGAZKI ELKARTEA**
Babeslea: **AZPEITIKO UDALA**



OINARRIAK

- 1.- Nahi duen pertsona orok parte har dezake argazki lehiaketa honetan.
- 2.- Gaia: **2016ko Otsailaren 26, 27 eta 28an Azpeitian**, Inauterietako festetan ospatuko den nagusien **Sokamuturra**.
- 3.- Sokamuturra gaia **zuri-beltzean** izango da. Ezin izango da fotomuntaiarik aurkeztu.
- 4.- Egile bakoitzak aipatutako gaiari buruz gehienez **bost argazki** aurkeztu ditzake. Sari **bakarra** lortu ahalko duelarik "sari berezia" kontutan hartu gabe.
- 5.- Argazkiak entregatuko dira **paperean** (Tamaina 20 x 30 cm), atzealdean, argazkiaren izenburua, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa azaldu behar direlarik **eta CD-an**, JPG formatuan.

LEHIAKETATIK KANPORATUAK IZANGO DIRA ARGAZKIAK AURKEZTERAKOAN, BI FORMATUETAN AURKEZTEN EZ DITUZTEN LEHIAKIDEAK.

- 6.- Lanak pakete edo sobre itxian bidali beharko dira helbide hauetara:

Azpeitiko Argazki Elkarteak,
Apdo. Correos 326
20730 – AZPEITIA

edo

Sociedad Fotográfica de Azpeitia
Plaza Pérez Arregui nº1, 1º
20730 - AZPEITIA

- 7.- Lanak aurkezteko epea **2017ko Martxoak 16, Osteguna 22:00**etan amaituko da.

- 8.- Honakoak izango dira sariak:

Lehenengoa: 365 € eta garaikurra
Bigarrena: 235 € eta garaikurra
Hirugarrena: 200 € eta garaikurra
Laugarrena: 120 €
Bosgarrena: 80 €.

- 9.- Gainera, sari berezi bat egongo da: **Iñaki Joaristi "Altzarte", 150 € eta Plaka, Inauterietako Jai Giroari** buruzkoa argazki onenari. Hau **KOLORETAN** izango da. Sari honetarako, partaide bakoitzak **bi argazki** aurkeztu ahal izango ditu, 4. eta 5. puntuetako betebeharrak jarraituz.

- 10.- Epaimahaia Azpeitiko Argazki Elkarteak aukeratuko du

- 11.- **2017ko Martxoaren 25ean, larunbata, eguerdiko ordu-batean**, erakusketa irekitzearekin batera, **sari banaketa egingo da.**

- 12.- Erakusketara etortzen diren ikusleak ere, **sari herrikoi bat** emateko aukera izango dute, bere gustuko argazkiari botoa emanaz. Argazki irabazlearen egileak plakatxo bat jasoko du. Botoa ematen duten ikusleen artean 10 argazkiren 20x30ko anpliazioak zozketatuko dira
- 13.- Saritutako argazkiak erakunde antolatzailearen jabetzan geratuko dira. Irabazleak ez direnak, erakusketa ixten denetik hurrengo hamabost egunetan erretiratu ahal izango dira Azpeitiko Argazki Elkartean.
- 14º- Ohiturari jarraituz parte hartzaile guztiak afaltzera gonbidatuta daude non irabazleek sariaren %30 emango dute afaria ordaintzeko, gainontzekoa norberak ordainduko du.

OHARRA:

AAEk, ez du bere gain hartzen ekintza garatzen den bitartean pertsonengan, argazki ekipoetan edota edozein ondasunetan sor daitezkeen kalte edota hondatzearen aurrean inolako erantzukizunik.

Ekintzan parte hartzen dutenak izango dira beren buruaren, argazki ekipoen eta ondasunen arduradun bakarrak, eta baita ekintza garatzean hirugarrengoei eta bere ondasunei sor lekizkiekeen kalteenak ere. Ekintza honetan parte hartzeak berekin dakar arauok erabat onartzea.

Azpeitian 2017ko Otsailean 20a